MARTIARTU AUZOTIK ERDIGUNERA BIDEAN ESKUHARTZEAK

ETXEBIZITZA DOTAZIONALAK ETA BULEGOAK ARRIGORRIAGAN

IKASLEA: HENAR MERINO | TUTOREA: IÑAKI BEGIRISTAIN MITXELENA | DATA:2019.06.25


Hego altzaera

Ipar altzaera

Patiotik ebaketa

Zeharkako ebaketa

+2, +3, +4 eta +5 Oinak, oin tipoa

+1 Oina, Lantegia

+0 Oina



MARTIARTU ETA AIXARTE AUZOAK

Nerbioi ibaiak banatzen dituen bi auzo hauek, Arrigorriaga herriko hego-mendebaldean kokatzen dira, herri zentroaren aldamenean.

Aixarte auzoan, herri zentroarekiko duen gertutasunak erakarrita, nerbioi ibaiari bizkarra ematen dion etxebizitza bloke luzea eraiki zen. Eraikin hauetatik eraiki zen lehena biltegi zaharraren parean dago. Momentu horretan Aixarte Arrigorriaga herriarentzako parke eta zona berde nagusia zen, gaur egungo parkea fabrikaz beteta zegoelako. Gainontzeko eraikinak 1983ko uholdeak eta gero eraiki ziren, Ugertze parkea isolatuz.

Martiartu auzoak herriak behar dituen zerbitzu asko eskaintzen ditu: ospakizunetarako jatetxea, landatar hotel bat eta geldialdi laburretarako beste bat, enpresak, etxebizitzak eta komertzioak. Zonalde hau, azpiegituren mugengatik zigortuen dagoena dela esan dezakegu, urteetan gune ahaztua bezala pasatzera eraginez.

1970. urtean eraikitzen ari zen errepide berriak ekarriko zuen bizitzaren ilusioarekin jaio egiten da Kirolak Eraikina.
Hainbat izan dira eraikina baztertuрik eta baldintza txarretan egotearen arrazoiak, kokapena, jabetza, uholdeak eta pilota zirkuituetatik kanpo geratu izana.
2004an BI-625 errepideari abiadura gehiago emateko, Martiartu eta ibaiaren beste aldea lotzen duen zubia eraiki zen. Zubiak Kirolak eraikina guztiz baztertua uzten du eta auzoaren biztanleei fabore gutxi egiten die.

Azken urteetan, herritarrek bultzatuta, Kirolak eraikina berpizteko ekintzak sustatu dira.
Udalaren aldetik Kirolak eraikina dagoen tokian beste hotel bat eraikitzeko Plan Berezia burutzen zen bitartean, herriko gazteak Kirolak eraikina zaharberritzeari ekin diete, eraikinaren jabeak baimenduta.

Ekintza hauek Martiartu auzoaren arazoez jabetzeko aukera eman dute, aldaketak ematen hastea ahalbidetuz.



ERAIKUNTZA BERRIKO INTERBENTZIOA A.A-4 JARDUKETA ASISTEMATIKOAN EKIPAMENDU PUBLIKO IZAERAKO 12 ETXEBIZITZA ETA 4 BULEGO AIXARTE 1 KALEAN, ARRIGORRIAGA

Mugek artikulatzen dute Bizkaiako inguru osoa, mendi haranek, ibaien arroek, eta gizakiok sortutako komunikazio sare mota ezberdinek. Azpiegiturek eskualde zona gehienak lotzen dituzte, Bilbao hiria konexio puntu garrantzitsuena izanik. Mugikortasun erraztasunak gertuko herriak hiriarekiko dependentzia gatatzea eragiten du, herriak lo-hiri bihurtuz.

Arrigorriaga Bizkaian kokatzen den herria da, Bilbo hiriguneetik oso gertu. Mendiz inguratutako harao batean zehar hedatzen da, Nerbioi ibaiertzaren ezkerraldean. Naturak presentzia handia hartzen du herriaren paisaian eta landaguneko kultura oraindik bizirauten du.
Aipatutako limiteak presentzia handia hartzen dute Arrigorriaga herrian; izena, Nerbioi ibaia eta errepide ezberdinek ixten duten gune estuan zehar hazten baita. Herri zentrotik oso gertu daudeen auzoak maiz gogor hausengatik isolatuak geratzen dira. Konexio puntuak ahulak dira eta bakartzera bultzatzen dute.
Inguruaren topografiak, ibaiak eta azpiegiturek herria zatitzen dute, inoiz bat egiten ez duen puzzle bat bezala. Piezak lotzen dituzten elementuek erabilera zerbitzuala baina ez erosoa dute, toki batzuetan zona ilunak sortuz haien izaera bakartuagatik.

Lotunak hobetzeko helburuarekin Martiartu auzoan kokatzen da interbentzio proiektua, non auzoa herriko erpenarentzatik 5 minutura egonda, alde batera utzitako gunea den.

Horretaz gain, historikoko mendekotasunak eta azken aldiko eraikigarritasun hazkundeak herriaren nortasuna arriskuan jartzen ari du.
Gero eta gutxiago dira Arrigorriaga errepresentatzen duten eraikinak. Bizkaiko biztanlerian hazkunde handiena izan duen herrietako bat da, azken urteetan eraiki diren etxebizitza kopuru handiak erakarrita. Eraikigarritasun honek herriari nortasuna ematen zioten eraikin batzuk ordezkatu ditu. Beraz, behar larria da geratzen den ondarea zaintzea.

1983.urteko uholdeek herri erdia suntsitu zuten, eta beste erdia kaltetua utzi zuten. 'Kirolak' eraikinak, ibaiertzean kokatua, kalte handiak jasan zituen, gehienbat sotoko solairuan. Uholdeek herriaren hazkunde erritmoa eraldatu zuten. Martiartu auzoa, adibidez, isolatuta utzia.

Proiektuaren xedea Martiartu auzoa herritaratzea izango da. Horretarako 2004. urtean eraiki zen zubiaren ardatzean zehar eskaburu ezberdinak gauzatuko dira. Bi interbentzio nagusi hauteman daitezke arkitekturari dagokionez, "Kirolak" eraikinaren birgaitze eta handitzeko proiektua eta Aixarte 1 partzelan aurkeztuko den eraikuntza berriko ekipamendua, azken hau izanda sakonago garatuko den proiektua.